


Karkara

53A 53. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1996KO SANPEDROAK



Nostalgia... Juan Ramón Llavorit zinemakaren argazkia

A L E B E R E Z I A

San Pedro 96

ERREPORTAJEA: NEKAZALTURISMOA AIAN • ELKARRIZKETA: MIREN SALSAMENDI

Cultura banatzen dugu.



Gozamena banatzen dugu.



Ahalitasuna banatzen dugu.



Osasuna banatzen dugu.



Ilusioa banatzen dugu.



Etorkizuna banatzen dugu.

*Urte osoan
irabaziak
banatuz.*



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

Dirua, pertsonen zerbitzura

KarKara

Herriko Plaza, 1
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua

SS 346/90

ISSN

1132-1105

Tirada

2.500 ale.

Erredakzio-taldea

Miren Etxeberria

Olatz Garrido

Eba Gaztañazpi

Iakes Goikoetxea

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Iñaki Iturain

Nere Manterola

Ainara Peña

Jabier Zabaleta

Aiako Erredakzioa

Eli Lasa

Idoia Zarautz

Publizitate-arduraduna

Miren Etxeberria

Kolaboratzialeak

Joxe Ramon Zubimendi

Udaleko Euskara Zerbitzuak

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Azken orrialdeko marrazkia

Luis Cisneros 'Vis'

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

4 Gutunak

5 Herrian galdezka

*Orio herri turistikoa
izatearen alde al zaude?*

6 Herriko kontuak

10 Kirolak

13 Disko-kritika

14 Iritzia Joxe Ramon Zubimendi

15 AIA

Berriak

Erreportajea: Nekazal turismoa

19 Erreportajea

Festa non, ni han

22 Elkarrizketa-

Miren Salsamendi

24 Denetik pixka bat

29 Kolaborazioa

Menuak euskaraz

30 Azkena

**1996ko
publizitate-prezioak**

Modulo bat 1.500 PTA

Bi modulo 3.000 PTA

Hiru modulo 4.500 PTA

Lau modulo 6.000 PTA

Sei modulo 9.000 PTA

Orrialde erdia 13.500 PTA

Orrialde osoa 27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Orioko Udalak ez du elkartasunik erakusten lana banatzerakoan

Urtero-urtero lanean jende bera. Urtero-urtero familiarik pobrenak lanik gabe gelditzen dira. Sekula lanik egin ez duten gazteek kale gorrian segitzen dute.

Udalak 1996an kontratatatu dituen langileek ez dezatela lanik izan 1997an; edo, gutxienez, lan-denbora banatu dadila. Horixe eskatzen diogu Udaleri. Gipuzkoako beste udal barzuk hori egiten dute. Azken adibidea Getarikoa.

Ez dugu zalanlan jartzen kontrataturako lan ahalmena, eta, gainera, badakigu hauetako ere lana behar dutela. Baino hain lanpostu guxi egonda, solidarioak izan behar dugu eta dauden lanpostu urriak

denon artean banatu beste erremediorik ez daukagu.

**ORIOKO EKARTE SOZIALISTAREN IDAZKARIA
PSE EUSKADIKO EZKERRA PSOE**

* KARKARAK euskaratua



ERREDAKZIOAREN OHARRA

Erredakziora iristen zaizkigun gutun guztia argitaratzen ahalegintzen gara. Hala ere, zenbaitetan arazoak sortzen zaizkigu gutunak lukeegiak direlako edo berandu iristendirelako. Horrela eta, horako arauak aplikatzea erabaki dugu:

- Gutunen luzera mugatu egingo dugu eta DIN A4 formatuko orrialde bat baino luzeagoak direnak ez ditugu onartako. Honik gorakoak laburtzeko eskubidea gure gain hartzen dugu. Horrelakoenan, egilearekin harremanetan jartzen ahaleginduko gara.

- Ez dugu gutunetarako lekunik gordeko. Erredakziora iritsitako ordenean argitaratuko ditugu.

- KARKARAKO zenbaki basetik besterabilabete pasatzen denez, gutun-egileei eskatzen diegu ez ibsoiteko azken-azken egunera arte beren gutuna guri emateko, gertabullitiko ordurako leku hori beteta egotea.

- KARKARAK eskubidea du gutunak moldatu eta egokitzeko, testua ulergarriago egiteko. Beti ere, jakina, esanahiak aldatu gabe,

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2

TFNOA 83 10 86



ORTZAIZKA

JATETXEA

- | | |
|---------------|--------------|
| * Bataioak | * Despedidak |
| * Jaunartzeak | * Ezkontzak |

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika



Mutua General de Seguros

Felipe Arostegi
AGENTIA

Arantzazuko Ama, 5-2.esk.
telefonoa: 83 12 91

Mota guztiako aseguruak:
Enpresa ertaina eta txikia
Etxea, istripuak, jubilazio planak, bizitza aseguruak, gaisotasunak, komertzioak, koxreak eta.



IRADI AHOLKULARITZA

- ✓ ERRENTA AITORPENAK - BEZ (IVA)
- ✓ SOZIETATEEN GAINeko ZERGA - NOMINAK
- ✓ KONTABILITATEA ETA MOTA GUZTIKO ASEGUROAK (ZURICH)

Aita Lertxundi, 33 behe Tel./Fax. 13 46 96



KAXKAMOTX

GIZONEZKOENTZAT
ILEAPAINDEGIA

IREKI BERRIA

13 47 19

Orio herri turistikoa izatearen alde al zaude?

Udan sartuak garenez, gure herriak turismoarekin duen lotura kontuan hartu eta jendeak gai honi buruz dituen iritziak jakin nahi izan ditugu. Ona al da turistak etortzea?

Bultzatu egin beharko al genuke hori?



ARANTXA ARRILLAGA

48 urte

Orion turismoa kanpinera etortzen den jendearekin ikusten da batik bat, eta, beste modu batean, domingeroekin.

Herriari dirua kanpinak ematen dio.



JUAN BRAVO

27 urte

Udara aldean kanpoko jende asko etortzen da, giro ona dagoelako eta kanpina itsaso ondoan dagoelako. Herrian denda dugunontzat ona da, baina askotan kanpokoei gauza gehiago ematen zaizkie herrikoei baino.

JUANITO URKIZU
57 urte

Orion turismo dexente dago. Horren arrazoia kanpina hondartzaren hegalen egotea da, eta baita herrian dagoen giroa. Herriari on handia egiten dio kanpoko jendea etortzeak.



BEGONA MANTEROLA
55 urte

Udan eta eguraldi ona egiten duen asteburuetan kanpotar asko etortzen da. Gehienak kanpinera, eta gutxi batzuk pisu alkila-tuetara. Nire utez, turismo hau onuragarria da herriarentzat.



Orioko Ogia



IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15



Haurrentzako
oinetakoak

San Nikolas, 9 behe
Tfnoa: 83 28 05

LIZASO
ERLOJU eta
BITXI DENDA

Tfno: 01a 5 Tfnoa: 83 16 90
Zarautz, Ipar 6 Tfnoa: 01 17 43

URANGA
BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
Tfnoa: 83 12 36



Goiko Eskolako azken umeak, Maria Sagrario eta Inaxiorekin

Goiko eskola, guztion eskola

Uztailaren 24an itxiko da Maria Sagrarioren haurtzaindegia

Datorren urtean 100
urte beteko zituen
Goiko kaleko eskolak.
Ezin izango du
urteurren hori
1997ko apirilaren
27an ospatu, baina, ia
ehun urteko ibilaldi
luzean lortu duena ez
da makala: txoko txiki
bat irabazita dauka
oriotor guzton
bihotzean.

Pena handia du Maria Sagrariok. Bere buruan zuen urtemuga hori eta polita irudizten zitzzion horrelako zenbaki borobilarekin agur esatea. Bederatzi hilabete lehenago egindo du, baina, hala ere, gustora eta ordo egindako lanaren satisfa zioa ez dio inork kenduko. Izan ere, Maria Sagrariok

hogeita hamabost urte egin ditu umeekin lanean. Aurretik, Maria maestra amonak hirurogeita bost egin zituen eta bien artean, ia mende oso bateko lana egin dute.

Maria Sagrariok bi arrazoi nagusi azaldu dizkigu *Eskola Txikiko* ateak ixteko: alde batetik, ikastolak eta eskolak bi urteko haurrak hartzen hasi zirenetik, guztitu egin da haur kopurua. Bestalde, erretirorako edadea ere iritsi zaio.

Nekea ere sentitzen duela esan digu. Behin edadefuta ez dira indurrak gaztetan bezalakoak, ezta ere behar diren beste baldintzak: pazientzia, umorea, une zailei aurre egiteko kemenet... Dena dela, sikeria urte batez atzeratu balitz eskolek bi urteko haurrak hartzeko erabakia, seguru dago helduko ziola falta zitzzionari ehun urteak osorik bukatzen. *Hain ume gutxiarekin zaila da eskola marixan mantentzea —ge-*

hitu du—. *Etxearen alkilerra pagatu, konponketak egin, aseguruak eta bestelakoak pagatu... diru asko eta oso laguntza gutxi jasotzen dugu.*

Pena bezain handia da, ordea, satisfazioa; batez ere, azken egun hauetan jasotzen ari den zorion eta esker oneko hitzengatik, poza eta animoa ematen baitiote azken txanpa egiteko. Kazetari asko inguratzen zaio eta sortutako jakinmin hori nolabaiteko kompensazioa da berarentzat.

Beti euskaraz

Eskolan 27 ume ditu orain baina askoz gehiago ere izan dira. Izan duen ume txikiena hamar hilabeteren eraman omen zioten eta, urte askotan, sei urte bete arte eduki ditu.

Inoiz ez omen da itxi eskola. Beno, ondo esanda, bi

hilabetez itxita egon zen gerria-denboran. Berak ez zekien zergatik eta amona Mariari galdu omen zion, eta hark erantzun:

—Zergatik itxi didaten eskola? Ba, euskalduna nazelako itxi didate!

—Ba, guk horrela segitako dugu.

—Hori nahiko nuke, izan zen buelta.

Esan eta egin.

Beti sentitu dut nahiga-bea oporrik bertan ikusita. Bai baitakit ditudan ume horietatik asko ez direla bueltatuko irailean. Baino, oraino honetan akabo, ez asko eta ez gutxi. Gogorra izango da niretzat, aitorri dugu.

Gipuzkoako haurtzaindegirik zaharrena ixten ikustea latza izango da, hainbeste ordu bertan bete duenarentzat, dudarik ez. Inaxiok lagundu beharko dio pixkat momentu hori ahalik eta lasaien pasatzeko, eta egingo du, azken sei urte hauetan lagundi dion bezala. Tokatu zaio berari ere umeak besotan ibiltzea, negariak laztantzea, eta, beste erremediorik ez zegoenean, sukaldetik kazuela-tapak hartu eta *bat, bi, hiru, lau...* kantatzan hastea.

Eskerrak gurasoei

Gauza bat eskatu digu M. Sagrariok, behin eta berriro: bihotz-bihotzetik eskerrak emateko berarengan konfiantza azaldu duten guraso guztiei.

Bukatzeko, esan behar da uztailaren 24an, Santio bezperan, itxiko dela eskola; 31n, San Inazio egunean, meza izango da ordubatean, bereziki amona Maria maistraren oroinmenez eta eskolatik pasatako guztiotzat; gero, familiarekin baziaria egingo dute Loretxun.

Joxe Ramon Llavorit zumaiarrak irabazi du argazki-lehiaketa

Aldizkari honetako azalean ikus dezakezue KARRAK eta Kultura Batzordeak antolatutako argazki-lehiaketa irabazi duen lana, *Non dago...?* izenekoa.

Lehiaketako bigarren saria Luis M. Illarramendik irabazi du, *Bat argazkiarekin; hirugarrena Maribel Bruñok Aupa Orio!* izenekoarekin eta laugarrena Xume Elizalde, *Hunabarra-rekin*.



Ramon Serrasen argazkiak Salatxo tabernan

Ramon Serras Zarauztaren koloretako argazkiak daude *Salatxon* ikusgai.

Ramon Serras oso ezaguna da argazkigintzaren munduan eta, honako honetan, Polaroid sistemarekin egin-dako fotografiak ekarri ditu guregana. Orioko argazki batzuk ere azaltzen dira tartean.

Uztailaren 19an, bestalde, —aldaketarik egiten ez bada— *Gozategi taldea* izango da kantari Salatxon.

Mendizale gaztetxo ugari Finalistaren Egunean

Ekainaren 9an Orion ospatu zen *Finalistaren eguna*. Urte osoan mendian ibiltzen diren eskola-umeak biltzen ditu ekitaldi honek eta, aurten, gure herrian izan genituen. Herriko zenbait erakundek parte hartu dute prestatte lanetan —Talai Mendi, Udala, Guraso Elkar-teetako kideak...— Zaragueta Eskolan bildu ziren etorritako guztiak, ibilaldia bukatu eta gero, bertan jarritako tirolina, rokodromo, eta abarrekkin disfrutatzeko.

Goizeko bederatzieta eman zitzaien hasiera egunari. Mendizale gazteek, eta bestelako lagunek ere, herriko plazatik abiatu ziren ibilbidearen hasieran. Ibilaldi erregulatua Kukurri inguruau egin zuten eta, tokiz-toki hartutako informazioarekin, fitxa bat osatu behar izan zuten: hori zuzen bete zutenek Port Aventurarako bidea bat egiteko zozketan sartu ziren. Parte hartzale guztiak agiri bat ere jaso zuten.

Gutxi gora-behera mila bat lagun hurbildu ziren Oriora. Eguraldia lagun, egun ederra pasatzeko aukera paregabea izan zuten guztiak.

ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,

BAINU MANPARAK

P.V.C., ALUMINIOA,

POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Azpiroz Ibarreta

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE

Telefona: 36 22 77

RAMIRO
Telefaxa: 83 10 48

K
Kuttun

Balearen kalea, 2 tlfnoa: 83 38 04

OPITZ
Oinetakoak tlfnoa: 83 00 89

Antzerki taldearen emanaldia Itsas Etxean

Iazko azaroan jarri zen antzerki-tailerra bigarren al-diz martxan. Hasiera batean hamabi laguneko taldea osatu zen arren, sei lagunek bukatu dute ikastaroa.

Ikastaroari bukaera emateko, uztailaren 5ean antzerki-lan-motz bat antzetzuko dute Itsas Etxean.

Esan digutenez, antzezlan hau kurtsoan zehar egin duten lanaren fruitua da.

Euskararen kale-neurketa

Euskara Zerbitzuak urtero egiten duen euskararen erabileraen kale-neurketako datuak honako hauek izan dira aurren: haurren artean % 92,6ak erabiltzen du euskara kalean; gazteen artean, % 70,1ek; helduek, % 57,6 erabiltzen dute eta zaharrek, % 71,9.

Aurreko urteko datuekin konparatuz, azpi-marratze-ko da haur, gazte eta helduen erabilera-indizeek gora egin dutela. Gazteen indizea izan da gehien igo dena; hamar puntutik gora. Indizea % 60,6koa zen 1995ean.



Antxoaren Kanpaina kaskarra izan da aurten

Aurtengo antxotako kanpaina, jeneralean hartuta, kaskarra eta *flojoa* izan dela esan digute Kofradian.

Kanpainaren hasiera-hasieran sortu zen kezka, antxo gutxi zegoela eta. Azken aste hauetan gehixeago harrapatu den arren, lehengo urtean baino askoz ere gutxiago harrapatu eta irabazi dute arrantzaleek.

Antxo geru eta hobeto zaindu eta tratatzen da baporeetan, baina, hala ere, merkatuan prezio bajua egiten du. Merkatsuak arrain handia nahi du eta hori ez da gehiegiz aurkitzen. Erdi tamainakoa, berriz, harrapatzan da, baina oso prezio bajua egiten du.

Bestalde, herrian zabaldu da bapore batzuk Azoresera doazela segituan baina Kofradian esan digutenez, hori zurrumurrua baizik ez da. Bapore guztiak, beti bezala, San Pedro jaiak pasa eta gero aterako dira itsasora, baina ez dira, oraingoz, Azoresetara joango.

ZUMINTZA

- Ileapaindegia
- Depilazioa

83 17 56

- Estetika
- Sauna

DORRONSORO

JANARIDENDA

Abeslari 3 83 09 37

KOLON TXIKI

- * PINTXOAK * KAXUELITAK
- * EGUNeko MENUA

83 00 44 / 13 20 26

Herriko plaza, 4

Eugenio Garmendia

KONTSEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66

Kubaren alde

Urola-Kostako Mankomunitateak Kubaren aldeko kanpaina bat jarri du martxan.

Kampainaren helburua hau da: Kubara bidatzeko material optiko eta informatikoa biltzea.

Material optikoa betaurrekoak, monturak, lenteak eta horrelakoak dira; informatikoa, berriz, ordenadoreak, pantallak, disketeak, memoriako txipak, inprimagailuak eta abar.

Kampaina martxan da dagoeneko eta uztailaren 12an bukatuko da. Materiala honako lekuetan utzi behar da: material optikoa plazako Orio optikan, eta informatikoa, berriz, udaletxeko bulgoetan.

HBk itxialdia egin zuen udaletxean

Hilaren 14an, iluntze par-tean, herriko udaletxean entzerratu ziren 30 lagun inguru. Itxialdia hurrengo eguneko eguerdian bukatu zen, eta, arrazoia, euskal preso politikoek daramaten botrokkarekin bat egitea izan zen.



Udako kultur programa

Udaleko Kultura eta Euskara Batzordeak prestatu du dagoeneko Udako kultur ekintzen programa. 'Ostiralean Jai' programaren baruan antolatuko diren emanaldiezin, Santiago Azurzaren omenezko IV. organo-kontzertua izango da uztailaren 13an, larunbatekin: José Santos de la Iglesia organojoleak eta Daniel Sancastor tronpetajoleak joko dute batera. Uztailaren 25etik 31 arte Iñigo Manterolaren pintura-crakusketa izango da udaletxeko pleno-aretoan.

Artisautza-crakusketa, berriz, uztailaren 28an izango da. Aurreko urtetan abuztuan antolatu izan da crakusketa, baina aurten aurreratu egin da Udalak Chipionara antolatu duen bidaiaarekin batera ez tokatzeko.

Abuztuaren 3an traineru-estropadak izango dira, 'Oriotarrak' komiteak antolatuta: Euskadiako Kutxako trofeoa. Abuztuaren 25ean, berriz, Iparraldeko Eguna ospatuko da.

Iraialaren 14an, larunbata, ganbara-musikako kontzertua izango da elizan.

Aipatutako horietaz gain, izango da beste ekitaldiak bat ere, baina oraindik ez dago guzitiz zehaziuta.



Denda Telefaxa: 13 10 88

Almazena Tfnoa: 13 25 33 Faxa: 83 57 01

◆ MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

◆ SUKALDE EKONOMIKOAK

EROSLE

AUTOZERBITZUA

ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA

Lasaitasuna eta giro ona



Iñaki Oliden sasoi betean Mallabiako saioan

Ekainaren 2an *Harri Txikiko* Euskadiko Txapelketa jokatu zen Mallabian eta puntako harrijasotzaileak bildu ziren bertara, indarrak neurtzera.

Bitxia izaten da txapelketa hau: lau harri jaso behar dira, bakoitzarekin hiru minutuko lana eginez. Harriak txikiak dira: 150 kilo ditu errektangularrak, 125 zilindrikoak, 112 eta erdi kubikoak eta 100 bolak. Altxaldi guztietan jasotako kiloak batu egiten dira.

Zelai izan zen irabazlea 13.512 kilorekin; *Izeta* bigarren, 11.812rekin; *Egi* hirugarren, 10.850rekin; eta Iñaki Oliden laugarren, 10.637rekin.

Iñakik hemeretzi urte ditu eta, *kintopeko* mailakoa izan arren, nagusi eta onenetakoentzako artean sartzea lortu zuen. Gainera, hirugarren harriarekin bukatu zuenean, artean hirugarren zen sailkapenean. Azkenekoarekin izan ziren kontuak eta, dena eman bazuen ere, ez zuen lortu postuari eustea eta laugarren geratu zen sailkapen orokorrean.

1991n Jon Saralegik jarritako marka —hogeitabat urtetik beherakoentzat— hautsi egin zuen, ordea, eta 6.800 kilotan zegoena, 10.637tan jarri.

Futbitoko finala San Pedro jaietan jokatuko da

Ekainaren 14 eta 15eko asteburuan finalerdietako lehen partiduak jokatu ziren, bi partiduetara jokatuko baitira.

Lehen itzulian, ligari dagokionez, emaitza hauek izan ziren:

Kepa 3—*X* 1 eta

Salatxo 1—*Oilden* 3.

Kopari dagokionez, emaitza hauek izan ziren:

Duran 1—*Aia-Orio* 7 eta

Azkenak —*PPOrío* 6.

Finalak festetan jokatuko dira, Igandean 20:00etatik aurrera frontoian.

Arraunlari oriotarrak Suitzan

Ekainaren 1 eta 2an Eder Etxeberria eta Jon Redondo Suitzako Macon herrira joan ziren. Jon Redondok Espainiako selekzioarekin jokatu zuen eta Eder Etxeberriak, berriz, Euskadikoarekin.

Bestalde, Jokin Salsamendi Luzernan izan da, Olinpiadarako proba batuetan, Laukoan lehiatzen zen, baina, zoritzarrez, ez du lortu Atlanta 96rako pasaportea.

Ekainaren 8 eta 9an Castro Urdialesen Espainiako trainerilla-txapelketa jokatu zen eta Oriok irabazi zuen.

Zortzikoaren denboraldia ere bukatzean dago: ekainaren 23an jokatuko da Euskadiko txapelketa eta 29 eta 30ean Espainiakoa.

ORRAZKERIAK
TFNOA. 83 12 61

Gazte-
entzako
prezio
bereziak

SARASUA ERRETEGIA

**Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak**

Eusko Gudari, 29
Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

Aurtengo Sofbol eta Beisboleko emaitzak

Maiatzaren 25ean Gipuzkoako Beisbol eta Sofboleko txapelketak jokatu ziren. Bertan Orioko neskamutilek lan ezin hobea burutuzuten. Beisbolean multilak Gipuzkoako txapeldun geratu ziren, eta ondoren Euskadiko txapelketan hirugarraren postua lortu zuten.

Sofbolean, berriz, neskak Gipuzkoako txapeldun geratu ziren, iaz bezala.

Futboleko sarketa bereziak.

Orioko futbol taldeak denboraldia bukatu ondoren afari bat antolatu zuen Errota jatetxeen. Afari horretan 95-96 denboraldiko sariak banatu zitzuten kategoria ezberdinetan. *Pitxitxiak* hauek izan dira: erregionaletan, Jaime Colado (9 gol); jubeniletan, Anartz Aizpurua, usurbildarra (11 gol); kadeteatan, Josu Solaberrieta. Jokalari-rik onenak, berriz, hauek izendatu zitzuten: erregionaletan, Aitor Rubio; jubeniletan, Gorka Arruti; kadeteatan, Haritz Jauregi. Jokalari-rik onenak taldekoideek aukeratu zitzuten.



Erdian daudenak, Marti-Sagasti, dituzue faborito, nahiz eta finalaurrekoetako bigarren partidua galdu eta esta ibili finalean sartzeo.

Pelota-txapelketako finalak igandean

Urtero bezala, San Pedro aurreko azken igandean, ekainak 23, pelota-txapelketako finalak jokatuko dira, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Hauxe duzue egun horretako programa:

Neskak: Urdangarin—Murgiondo / Urretabizkaia—Uranga

Benjaminak: Galarraga—Esnaola / Esoain—Mateos

Alebinak: Aranalde—Lasa / Galarraga—Amenabar

Infantilak: Ruiz—Iribar / Torre—Castro

Pala: Atorrasagasti—Martikorena / Beldarrain—Iturain

Erremontea: Agirresarobe—Itsaso / Fagoaga—Aizpurua

Aukera polita dugu igandean Espainiako txapelketa eskuratu berria duen Borja Agirresaroberen jokua ikusteko, oraingoan oriotar batek lagunduta, Itsasok. Partiduen ostean, txapelak eta kopak emango zaizkie finalista guztiei.

ANARR /

kirola egiteko eta denbora librerako
arropa eta ekipamenduak
tfono: 83 21 60

ORIO
AUTO-ESKOLA
Telefona: 83 57 19

TALAI
AHOLKULARIAK, S. L.
ASESORIA:
FISKALA, LABORALA
JURIDIKOA, KONTABLEA,
DIRUA AURREZTEKO

Iñaki Olariaga Larrañaga

Eusko Gudari, 50-B, 1.E Telefaxa: 13 37 20

**MAPFRE
ASEGURUAK**

- ✓ Osasun laguntza
- ✓ Etxeak erosteko finantziazioa
- ✓ Inbertsio fondoak
- ✓ Jubilazio planak

Imanol Atorrasagasti

"X eta Kepa taldeen artean erabakiko da txapelketa"

Larunbat arratsaldetan jende mordoa biltzen da Zaraguetan. 1983az gerotik, urtero jokatzen da futbito-txapelketa eta aurten ere horretan ari dira herriko hainbat talde. Aurten Areto Futbol Taldeak hartu du txapelketa antolatzearren ardura eta aitortu digutenez, ez omen da batere erraza. Dagoeneko bukatzean dago eta, beraz, antolaketan aritu den Imanol Atorrasastiri egin diogu elkarriketa txapelketa horren nondik norakoak jakin nahian.

Lehenago futbito txapelketa Xurrumurruk antolatzen zuen, nolatan hartu du aurten Areto Futbol Taldeak ardura hori?

Xurrumurruk utzi egin behar zuela entzun genuen, eta, futbito talde bat genuenez, lojikoa iruditu zitzai-gun guk antolatzea. Gainera jende guztia egoten da futbito hasi zai.

Zenbat talde apuntatu dira, zenbat multzotan banatu dituzue eta nola?

Hemeretzi talde apuntatu ziren eta zozketa bidez hamar eta bederatziko bi multzotan banatu genituen.

Liga eta kopa jokatu dira, ezta?

Lehenengo lau astebuketako partiduetan puntuazio onena zutenek liga jokatzen zuten. Beste lau asteburuetan, berriz, emaitza onenak zituztenak koparoko

sailkatzen ziren. Liga eta koparoko sailkatzen ez zirenak kalera joan ziren zuñean.

Neskek ez dute parte hartzan.

Beti mutilek jokatu dute. Bainak talde misto bat edo neskek osatutako talde bat onartuko litzatekeela uste dut.

Aiarrek ere jokatu nahi dute futbito txapelketa honetan.

Arauetan esan zen gehieitez bi kanpotar onartuko zirela, hau aurreko urteetan izandako arazo alegatik da. Aste Santua baino lehenago talde bakotzak bere hamar jokalarien izenak zehaztu behar zituen, bestela ekipouak zehaztu gabe egonda, partidu importanteetan jende hobea ekartzen da.

Antolakuntza aldetik zein hutsegite egin ditu Areto



Futbol Taldeak?

Hasieratik izan genituen arazoak. Xurrumurrukoek ere esan ziguten ez genekielala non sartzen ginen. Urtero bezala epe bat jarri zen izena emateko eta talde bat epezkanpo etorri zen beraiek ere parte hartu nahi zutela esanaz. Hau herriko txapelketa da eta ezin diozu ezetz esan. Bainak hutsegite handiena, beste txiki batzuen artean berandu hastea izan zen.

Hurrengo urtean ere segituko al duzue?

Seguru asko ez. Arazoak izan ditugu eta, horrez gain, larunbat arratsaldeak eta igande batzuk galtzen dira.

Baina badakizu horrelakoe-tan zer gertatzen den, bukaeran erreta zaudelako ezetz esaten duzu eta gero hasteko desiatzen zaude.

Izan al duzue istilurik?

Bai, bat Gabonekin gerta-tu zen. Arbitratzeria joan behar zuten eta ez ziren azaldu. Arauei jarraituta, kalera joan beharko zuten, baina bi biler-a egin ondoren ez bidaltzea erabaki genuen. Penalizazio bat jarri zitzaien.

Pronostikoren bat egingo al zenuke?

X taldea eta Keparen artean jokatuko da liga.

Disko-kritika

Gozategitarren bigarren diskoa

Trikitixa? Reagga-e? Tex-mex-e?... Ez, Ainhoa. Gozategi taldearen bigarren disco plazaratu berri honetan trikiaren aire iheskorrek chundutako doinuak, aurrekoaren haritik, estilo horietan eta beste hainbatetan edanda -baina euskal sena galdu gabe- berbena eta erromeria giro alaiez zipristintzen digu animoa, eta badu nialmena gaiso daudenak ere dantzan jartzeko. Musika atsegina, gazte ametsak eta Euskal Herriaren gaineko kezka ditugu, batera, disco honen gogoan.

Diskoa atera denetik zenbat aldiz ez ote dut harrapatu du nire burua 'Emoitaxux muxutxuek' izeneko kantua tarareatzen. Musika-aditurek «euskal gazteen giroko udako kanta» izendatua dute, dagoeneko. Aurtengo udan, batek baino gehiagok esangodizki maiteari bi hitz horiek herrietako festetako erromerietan. Eta, kantu honen lilurapean, irrika eta ujuka, batzuk maitea laztandu nahian, beste batzuk algaran eta partordan, gazte guztia aberastuko dira zertxobait. Gainera, kantu hau bizkaieraz plazaratzea meritutzat jotzekoa da hainbeste jende probintzikeriak jota dabilen garaian.

Iaz plazaratu zuten lehenengo diskoko Nor-Nori-Nork hura ere iazko udako kantariak ezaguniena izan genuen. Beraz, ezagun dute uda-garairako musika aproposa sortzen, behintzat, sena



Ainhoa eta Asier Gozategi anai-arrebak, eta Iñigo Goikoetxea uurreraka

badutela.

Baina «Nor-Nori-Nork» hartan ez bezela, oraingoan ez dute kanten hitzetan kritika garratza jasotzeko modukorik egin. Izan ere, disco harian harra-barra erabilitako umorea eta ironia fina, bi kantetan, gizartean behera begira egin zuten. Aizamazabalgo erdaldun bat eta ia ezertarako gauza ez den agure batzen bizkarretik egin zuten; eta kritika zorrotzak jaso ziuztzen. Oraingo honetan ere umorea, ironia eta kritika darabiltzate, baina gizartean gora begira, politiko eta militarraren kontra, batez ere.

Kantu gehienetan hitzen sortzailea Asier dugu, baina izan du laguntza Jon Maiia, Amuriza eta Ibai Esoain bertsolarien aldetik. Igeldon apaiz egondako Fabian Loi-

di zenaren hitzak ere hartu ditu Asierrek kantu baterako. Eta kantu honetan bezela beste batzuetan ere batasunari eta elkartasunari kantatzen diote, "indarrak batuta, deunik batera, gure etxeen nugsi gera, benetan elkartzan bagera". Maitasuna, askatasuna, eta hildako lagunarentzako oroimena ere kantuen osagaiak dira.

Doinuak Asier eta Iñigo Goikoetxeurenak dira, baina discoaren grabaketarako eta doinuak jazteko musikari-talde egokia osatu dute, oso.

Gozategi taldea gure herriko belaunaldi bateko askoren poz eta kezken ahotsa bihurtu da, une gozoen orioigarria. Eta ikuspegi honekatik ulertu behar da, agian, gaian eta doinuen arintasun zaindua. Honetan datza, hain

zuzen ere, disco honen indarra.

Lanak jaso dituen kritiken artean adjetiborik erabiliena-takoa erreza izan da. Baina literaturan ere irakurleak liburua, gustatzeaz gain, errez ulertzen badu, idazleak au-rretik lan haundia egin due-lako izan ohi da eta hori idazlearen meritura izaten da.

Diskoa «ainhoa» izendatuz erregalo polita egin diote taldeko neskari Asier eta Iñigok; discoa plazaratz, berri, musika alaia eta bizia-ren zale garen guztioi egin digute oparia.

Beldur baziren lehen-gokoak izandako arrakasta-ren mailari eutsiko ote zioten, pozik egoteko lan borobilta egin dute bigarrena ere.

● INAKI ITURAIN ●

Karkara eta karkaba



J. RAMON ZUBIMENDI

IDAZKERA-MINTEGIKO
ZUZENDARIA

Zubietan eta Usurbilen *karkaba* esaten diogu guk –ohitura lege–, zuek, Orion, *karkara* ditzan diozuen horri. Gauza bera adierazi nahi da, hortaz, han eta hemen; karkaba zera baita: bi etxeren edo bi etxe-ilararen arteko pasabide estua, berez kale izatera iristen ez dena. Kalezuloa, alegia.

Zuloa da, izan ere, karkaba: kalean, kalezuloa; baserrian, berriz, lubakizuloa edota, bestela, ukuiluko pixak eta kakak biltzeko zuloa. Nik, neure ezjakinan, ez dut ezagutzen karkaba hitzaren jatorria edo etorbidea (etimologia); baina badirudi grekeraz eta latinez ere, funtsean, zuloa esan nahi duela (erabili, ordea, eltzea, lapikoa edo kazueloa esateko erabiltzen omen zuten). Nolanahi ere, zuloa beti zulo, eta eltze hutseko zuloa, zulo t'erdit; gospeak ez baitu baratzen: *Eltze huts, gerra huts!* edota, esacerak dioen bezala, *Etxe huts, gerra huts!* Bidenabar esanda, ez ahal zaigu horrelako zoritzarrik etorriko Euskal Herria! Bestela, damutuko zaigu oraingo elkar ezinikusia, ahaztuko zaigu oraingo setakeria!

Natorren harira, baina! Natorren Orio eta Aia alderu; hemen *Karkara* besterik

bada eta: herriko aldizkaria, hain zuzen, zazpi urteotan berrogeita hamabi aldiz agertu den aldizkaria. Apain asko agertu ere plazara, euskaraz jantzirik eta itxura dotorez apaindurik; karkaba ez, baizik kale nagusia dirudiela esango nuke. Arrakasta ere halakoxea izan du, aizut; jende asko eta asko hurrengoaren pozetan egoten baita zain. Hori da asmatzea, hori! Zorionak, herrimaitzet ari diren bertako langile eta arduran guztie!

Hobeto pentsatzuz gero, kafe nagusia baino egokiago litzateke, noski, herriko plaza esatea: plaza, topalekua, elkartokia, (nahi izan duten) herritar guztien saila, oriotarren eta aiarraren arteko zubia, gizalege jatorraren alorra...

Gizalegea: hor dago kakoa! Gizalegea eta euskara, gizalegea euskaraz, eusko gizalegea, zabaltasuna, emankotasuna, begirunea, errespetoa, ausar-

dia, nortasuna, euskaltzaletasuna... Gizeleje jatorri horretantxe dago koxka; eta horixe erakutsi dute, alea joan eta alea etorri. Karkarako kideek. Eta ez pentsa bala-bala ari naizenik edota koipe-jurio nabilenik, aizut; jakizu egiaz ari naizela, neuk ezagutu dudan giroaz. Astero elkartu gara joan deneko sei hilabeteotan, asteazkenero, *Idazkeramintegia* lantzeko elkarrekin. Nik ez dakit zer ikasiko zuten niregandik; badakit, ordea, nik neuk hamaiatxo gauza ikasi dudala Karkarako kideengandik (baita Orioko eskola publikoko hiru maistrengandik eta euskaltegiko bi filologoengandik ere). Esan dezadan, labur beharrez, gizalegea, euskaltzaletasuna eta onginiahia izan ditugula eredu: *Zer ikusi, hura ikasi!* Bejondeielu, eta eskerrik asko!

52 zorion Karkarakoei; eta eskuartean duzun 53, ale hau –azkena, baina ez azkenekoa– gerora ere emango dituzten fruitu mardulen hasikina bestetrik ez dadila izan! Gainera, *karkara* hitzak barre-alvara ere esan nahi dueñezi, alaitasuna eta umore ona ere ongi torriak bitez gure artera. Aupa Orioko euskaltzaileak! Animo, Aia!




Gorputz eguneko ospakizun handia

Urteroko ohiturari jarraituz Gorputz eguna ospatu zen hainbat herrian, eta baita gurean ere. Prozesioan, eta bidea irekiaz, tunikaz jantxitako neskamutilak izan ziren Luisarren, Mariaren alaben, Jesusen Bihotzaren eta hirugarren Ordeneko estandarteen albotan. Hauen atzetik aurten lehenengo jaunartzea egin dutenak, ondoren, aingeruak, larrosaz betetako otarrak eskuan tean zituztela, eta azkenik, lau monagilo beren kandelekin.

**OLAKETXE
JATETXEAK**
San Pedro jai
zoriontsuaK opa dizkizue!
83 44 24

KANUA
Festak ospatzeko kategoriko lekuak
83 43 22


**Zingira
JATETXEA**
UBERON ARAIA
TFN: 132019
AIA-ORIA
**EZKONTZA, JAUNARTZE
EDO BATAIOETARAKO
LEKU APROPOSA**
*Bertako sagardoa eta
etxeko postre bereziak*

Aurtengo aurrekontua
onartu du Aiako
Udalak

Onartu berri da Aiako Udaleko aurtengo aurrekontua. Udalak, guztira, 195.000.000 pezeta gastatuko ditu herriko beharrei aurre egiteko.

Gastu garrantzitsuenak inbertsiotan izango dira eta besteak beste, hauek dira gure herriko Udalak dituen proiektuak:

Jubilatu en etxeak egokitu eta ekipatu, ur-sareko instalazioen saneamendua eta Elkanoko eta herriko ur-klorazioa, bola-tokia berritzea, altzariak erostea frontoiko aldagelak egoki-tzeko, Altzari inguruko murruaren urbanizazioa, Santio erreka-ren kanalizazioa, eta, azkenik, urtero egin ohi den bezala, ur hornidura eta bideak konponduz eta hobetuz joatea.

Bestalde, zerbait material ere erosiko dira, esate baterako, haurrentzako jolasak, parkerako.

SEGA
ezkontzak, bataiodak,
jaunartzek
Tinoa: 83 07 16 Erreka auzoa

ARISTERRAZU
Jatetxea
San Pedro **83 45 21**



Agote-Txiki baserria: oporraldetarako egokitua

Nekazalturismoa

natura eta oporraldiak

Udara iristean gehienok oporrekin pentsatzen hasten gara: mendira edo hondartzara, urrunera edo bertara, leku zarataitsu batera edo toki lasaietara... eta aiarrak herritik kanpora joaten garen bitartean, beste asko gure herrira etortzen dira, eskaintza ona baitago nekazalturismoko-etxeetan. Etxe edo baserri hauetan oporrak lasai, eteko bizitza eginez eta nekazarien munduarekin eta izadiarekin bat eginik igarotzeko hidea ematen da. Eta, itxuraz, turismo mota hau gero eta gehiago zabaltzen ari da

● ELI LASA ●

Euskal Autonomi Elkartean, une honetan 162 nekazalturismo-etxe daude, eta, horrela banatuak: Gipuzkoan 87, Bizkaian 44 eta Araban, berriz, 31 daude. Etxe be-

riak edo berritutako baserriak dira eta oso ondo presatuta daude. Gela bakoitzak bi ohe izaten ditu normalean, eta batzuk komunitate herrian dute. Bestalde, jangela-

egongela, edota, egongela ere izaten dituzte.

Etxe bakotzean onartzen den jende kopurua mugatua izatenda, lasaitasuna eta bertako giroa ziurtatzeko. Ge-

hienez hamabi lagun batera izaten dituzte normalean, eta hortik gora oso arraroa izaten da.

Prezioa, jakina, diferenzia izaten da etxe baterik bestera, baina, bataz beste, 3.500 pezetako bueltan, gela bat alokatu daiteke.

Zortzi etxe turismorako prest

Gure herriko kasura itzuliz, Aian zortzi nekazal turismo etxe daude guztira: Agerresoro-Haundi (Andatza bailaran), Agote-Txiki (Elkano auzoan), Argin (Arrutiegian), Olaskoaga-Goikoa eta Ubegun (Olaskoegian), Sagarmaneta (Urdatan), eta zabaldu berriak diren Landarbide-Zahar (Laurgainen) eta Pagoederra (Santio errekan).

Aia nekazalturismo etxe gehientsuen dituen herrietako bat da, eta, horrezagainez, baldintza ezin hobeak ditu bestelako aktibitateak ere egin ahal izateko.

Inguru aproposa

Nekazalturismo etxe guztiak naturarekin harreman zuzena dute. Hain zuzen ere, horixe baita beraien helburua. Baina Aia badu bestelakorik ere.

Ikus dezakegun bezala, ia auzo guztietan nekazalturismo etxe bana dugu, eta horrek badu bere arrazoia, Aitor Iruretagoiena, Sagarmanetako arduradunak, esaten digun bezala, "Aia leku be-



San Pedro 96

San Pedro 96

Ekainak 23, igandea San Joan Berde

- 10:00 Herri-krosa, plazan abiatuta
- 16:30 Pilota-txapelketako finalak frontoian
- 22:00 Sorgin-dantza kalejiran, *Ambil* dantza-taldeak antolatuta

Ekainak 24, astelehena San Joan eguna

- 22:00 Dantzaldia Eusko Gudari kalean: *Amalur* taldea. Aurretik bertsolariak izango dira: Ibai Esoain, Eusebio Lasarte eta Xabier Sukia. Saioa honako taberna eta jatetxeen babesarekin antolatu da: Kolon Txiki, Bordatxo, II Gelato, Xixario, Itsas Ondo, Antilla, Arkaitz, Gabon, Loretxu, Itzala, Sarasua eta San Juan Bide.

Ekainak 28, ostirala San Pedro bezpera

- 17:15 Eskubaloia frontoian: Orioko taldea, Usurbilgo talde txapeldunaren kontra
- 18:30 Judo-txapelketá eta gym-jazz eta taekwondoko erakustaldia frontoian, Indar Gym gimnasioak antolatuta
- 19:00 Txistulari eta buruhandiak
- 19:30 Trikitilarien kalejira
- 23:00 Txarangaren kalejira
- 23:30 Ikumiña altxatzea
- 24:00 Dantzaldia plazan: *Trakets* orkestra

Ekainak 29, larunbata San Pedro eguna

- 10:00 Txistularien kalejira
- 10:00 Beisbol-partidua Antillan: infantil mailako mutilak

BORDATXO TABERNA

San Pedro festetan... edateaz gain
BOKADILLO, SANDWICH ETA HANBURGESAK
jan ditzakezu

Ondo pasa eta on egin!

San Pedro 96

- | | | | |
|-------|---|-------|---|
| 10:30 | Meza nagusia udal-korporazioarekin eta txistularien laguntzaz. Salatxo abesbatzak Ch. Gounod-en <i>Messe breve</i> kantatuko du, lau ahotsetara eta organoaren laguntzaz. | 19:45 | Salatxo abesbatzaren kontzertua elizan |
| 11:00 | Trikitilariak kalejiran | 22:00 | Rock-konzertua Zaragueta eskolan. Dilistik taldeak antolatuta. Rock-talde berrien lehiaketa: <i>ITV, Noizean Behin, Atxantatu, Ortozik eta Ttak</i> . Ondoren, <i>Lin Ton Taun</i> taldearen aktuazioa |
| 11:00 | <i>Piratak</i> haurrentzako emanaldia plazan | 24:00 | Dantzaldia plazan: <i>Irusta</i> taldea |
| 12:00 | Jubilatuentzako hamaiketakoia Zaharren Babes Lekuan | | |
| 12:00 | Sardin-jana kalez kale | | |
| 12:00 | Sofbol-partidua Antillan: infantil mailako neskak | | |
| 12:30 | Poney-ak eta xexenak Zaragueta eskolan | 10:00 | Txitulariak kalejiran |
| 15:00 | Sofbol-partidua Antillan: senior mailako mutilak | 10:00 | Euskadiko Trialsin-eko txapelketa hondartzan. Parte hartuko dute: César Cañas, elite mailako munduko txapelduna 1995ean; Josep Dressler txekiarra, elite mailako munduko txapeldunordea 1995ean; Ot Pi, 13 aldiz munduko txapeldun izana; Alberto Gómez, junior mailako munduko txapelduna 1994ean; Elies Bonet, junior mailako munduko txapelduna 1995ean; eta Iker Lazeta, infantil mailako munduko txapelduna 1995ean. |
| 17:00 | Sofbol-partidua Antillan: senior mailako neskak | | |
| 17:30 | Ikastolako txotxongiloak plazan | | |
| 18:30 | Dantza-emanaldia frontoian, Orioko <i>Ambil</i> dantza-taldearen eskutik | | |



ZASS ileapaindegia San Nikolas jaiak ondo pasa ditzazuen opa nohi dizue

- *Tinte naturalak*
- *Masajeak*
- *Depilazio elektrikoa*
- *Ileapaindegia*
- *Estetika*
- *Solariuma*

San Nikolas, 2 Telf: 83 31 70



GURE TXOKO
TABERNA

ARITZAGA KALEA

San Pedro 96

11:00	Plater-tiroketa Antilla inguruan. Goiz eta arratsaldez	11:30	Haurrentzako jokuak plazan
11:00	Trikitilariak kalejiran	14:30	Jubilatuentzako bazkaria Altxerrin
11:30	Dultzaina-joleak plazan	17:00	Azkona taldea pailazoen emanaldia frontoian
12:00	Nakaezinak txaranga kalejiran	18:00	Hem-kirolak plazan: txingak, gizon-proba, harrijasotzaileak, aizkora, ingudea eta korrika Parte hartuko dute: Juan Miguel Betelu, Jose Ignazio Luxarbe, Jabier Etxeberria, Iñaki Oliden, Patxi Larretxea eta Donato Larretxea
12:30	Bertsolariak plazan: Ibai Esoain, Xabier Sukia, Eusebio Lasarte eta Ikastolako haurrek	19:30	Txiskola frontoian
17:00	Henrike gazteen arteko hem-kirol probak, frontoian	23:00	Su artifizialak Xual ingurutik: <i>Zamorano Caballer</i> piroteknia
20:00	Futbitoko finalak frontoian: Kopako semifinala, Kopako finala eta Ligako finala	23:30	Dantzaldia plazan: <i>Egan</i> taldea
24:00	Dantzaldia plazan: <i>Laiotz</i> taldea		

Uztailak 1, astelehena San Pedro hirugarrena

10:00	Txistulariak kalejiran
11:00	Trikitilariak kalejiran
11:00	Poney-ak eta xexenak Zaragueta eskolan

*Festetan esku-lanen erakusketa egingo du Ostargi
taldeak. Erakusketa udaletxeko pleno-aretoan izango
da honako egun eta orduetan:*

Ekainak 29, ekainak 30 eta uztailak 1

11:30 - 13:30

18:00 - 20:00

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telefonoa: 83 06 09

A

LTXERRI

Jatetxea

Telefonoa: 83 07 62

IL GELATO

- ✓ Etxeko helatuak
- ✓ Gosariak
- ✓ Laranja zumoak
- ✓ Batido naturalak
- ✓ Izozki-kopak

Txokolatadak eta meriendak

Egunero 6:45etarako irekita

**Festetan bokadillo beroak
eguneko edozein garaitan!**

Festak ondo pasa!!!

reza da horrelako turismo-rako. Batetik, Pagoetako parkean bertan dago mendian paseotxo bat emateko; bestetik, Agorregiko burdinola, errotak, Iturrarango museoa, lorategia eta erlategia bisita daitezke. Zarautz eta Orioko hondartzak ez daude urrutia, eta hondartza gustokoa ez dutenek, berriz, Aiako igorriekua eta frontoia ere hor dituzte".

Bezeroak gustora

Baserri berezi hauetako jabe eta arduradunek diotenez, hona etortzen diren bezero gehienak madrildarrak eta katalanak izaten dira, eta hauetako askok egonaldia errepikatzen dute.

Peninsulatik kanpo etorritako artean berriz, gehienak alemaniarrak eta frantsesak omen dira, baina, belgiarrak eta brasildarrak ere iritsi dira gure arera.

Bestalde, mota guztietako jendea izaten da beren oporraldictarniko aukera hauegiten dutenak. Hala nola, gazteak, familia osoak, bikoiteak... Bitxikeria gisa, aipatu digute, uda honetan apaiz talde batek lekua gordeta zuela, baina atzera egin behar izan dutela, Erronara joan behar dutelako kongresu batean parte hartzen.

'Sekula ikusi eta egin gabeak'

Bisitari askorentzat gauzarik erakargarriena gure eguneroko bizimoduia izaten da: belarretara joan, baratz eta soroa, behiak bildu, eta-

bar. Izan ere, sekula egin edo ikusi ez dituzten lanak izaten baitira bezero horietako batzuentzat.

Nekazalturismo etxe hauetako arduradunek aitor-tu digitenez, behin baino gehiagotan jarduten omen dira 'turistik' beraickin batera baserriko lanetan laguntzen.

Etorkizuna

Elkarritzetatu dirugun lagunek pozik daudela esan digute udaran izaten duten lanarekin, baina beren kezkak ere azaldu dizkigute.

Hemengo udaldia motz geratzen da, eta negua, berriz, luze samarra. Urteko hilabete gogorrenetan, udazkenean eta neguari, jende askoz ere gutxiago etortzen da gure inguruetara eta horrek eragin izugarria du.

Aurrera begira, dena den, itxaropentsu daude, badakitelako, oraindik ere gauza asko egin daitezkeela kaltitatea eta eskaintza hobetze-ko.

Baina, hori ere gaindituko dutela ziur daude, turismo mota honetan implikatuta dauden taldeen laguntza jasoko dute, eta baita udalarena ere.

Beraz, etorkizunerako gogotsu azaldu zaizkigu gure herriko 'hostalariak' eta beren helburuak lortzeko erabat prest.

Sustraiak jarrita daude, lanerako gogorik ez zaiet falta eta oso garbi daukate inguru ezin hobea dugula Aian, herriarentzat ere onuragarria den turismo mota hau indartu eta finkatzeko.

Aiako leihoa

Badatoz sanjuanak

'Badatoz sanjuanak, badator uda, badatoz oporrak, badatoz Hernaniko festak' pentsatuko dute askok eta askok; 'Bazetoztik Iturriozko festak' pentsatuko dugu Aia, Asteasu eta Errezilgo lurrik elkartzen diren inguru horretan jaio ginen gehienok.

Gogoan ditut sanjuanak. 'Giltzeroak' aukeratzen hasi orduko, festa-usaina zabaltzen hasten zen; ume, zahar eta gazteak preparatibouk egiten hasten ginen. Iturriotzen egiten ziren festak Aiako Etxeta eta Iruretaegia bailaretako gazteek antolatzen zitzuten eta dituzte. Auzo bakoitzak bere arduraduna izaten zuen eta du. Horien aukeraketarekin, giltzeroen aukeraketarekin, hasten ziren festak.

San Juan bezperan festa-usain aparta izaten zen: aitona lizar-hostoak biltzera joango zen, lizar-gurutzeak prestatu eta San Juan goizean baserriko leihoa eta ateetan jartzeko. Guk, umeok, sua egiteko egur eta zabor-meta prestatuko genuen, aurreko urteko lore-sorta botatzea ahaztu gabe. Iluntzean, Igeldo mendian lehen suak azaltzearekin batera, Aia aldeko suak ere zabaltzen joango ziren eta, suak indartu ahala, festak iragartzen zitzuten etxaferoen soinua entzungo zen auzoko giltzeroa zen baserriaren inguruin. Orduan, nahikoa kantatu, su-hondarrak bildu, etxeeko ekonomikara eraman... eta guztioi ohera.

San Juan eguna, Goizean goiz mailu-soinua entzungo zen, aitona lizar-gurutzeak jartzen ari zen seinale. Amonak, berriz, etxe inguruko lorerek ederrenak, soroko arto eta babarrun-landareak bildu eta San Juango baselizan emango zen mezan bedeinkatzeko sorta dotorea egingo zuen. Ondoren, Sustrailarritik gora, kontuz kontuz oinetakoak zikindu gabe, Iturriotza abiatuko ginen estrata zaharrean gora.

Hortik aurrera, kolpean datozkit oroitzapenak: Iturriozko karrean bi auzoetako eta inguruko jende mordosa; eliza loren, artoz eta azeri-buztanet dotoretua; meza erdiko kanpai eta etxafero-hotsa; haurren eta lore-sorten bedeinkapena; oilo-salda, eroskilak, mutil-ardoa, trikiti-soinua, dantzariak... Arratsaldeko errromeria, dantza... Mutilak, elkarri txanda eman ezinik, dantza eske... Etxerakoan neskua-laguntza... Hurrengo egunean, oilasko-biltzaileak noiz azalduko zain, auzoko zakur-zaunkak eta etxaferoak iragarie. Arratsaldean, berriro, trikitixa...

Horrelakoak izaten ziren San Juan festak Iturrotzen eta oraindik ere gordetzen dute kutsua. Horregatik, horroko garenok, auren ere saiatuko gara tartetxo bat hartu eta Iturriotz aldera azaltzen.

● JOSUNE EIZMENDI ●



Aiako San Pedro jaiak

Aristerrazun ospatzen dira San Pedro jaiak; eta, hau izango da programa:

Ekainak 29: Goizeko 11tan, Meza eta ondoren zaharren hamaiketakoia, 12:30tan, Herri Kirolak. Ondoren, Kristina eta Sorkunde trikitilariak. Arratsaldeko 5etan, Mus Txapelketa, 21:30tan *Etzakit* taldea.

Ekainak 30: (San Pedro Txiki eguna). Goizeko 10tan, Meza. Ondoren, Txontxongiloa eta Haur jolasak. Arratsaldeko 5etan, Txokolatada, eta Txinga eta Toka lehiaketa, Gaueko 9tan, *Joseba Iparragirre*.

Uztailak 5: Gaueko 11tan, *Maixa eta Itziar*.

Uztailak 6: Mutil ardoko baziaria, eta ondoren, oila-sko biltzea.

Uztailak 7: Goizeko 10tan, Meza, 12:30tan, Trontza lehiaketa, Ondoren, Kristina eta Sorkunde. Arratsaldeko 6etan, pelota finalak. Gaueko 9tan, Zabaleta eta Imanol trikitilariak. Eta, goizaldean, jaiei amaiera emateko, traka zaratatsua.

Arrakasta handiko erakusketa herriko eskolan

Ekainaren 9an eskolako haurrek kurtsoan zehar egindako lanak ikusgai egon ziren eskolan bertan. Lan handia egin dutela agerian geratu zen, bertan ikus zitezkeen eskulan, argazki eta marrazkietan.

Bestalde, Guraso Elkarteak prestatutako hamaiketakoia ere bikaina izan zela esan ziguten bertara joan ziren guztiak.

POR TU ERRETEGIA

- ✓ Despedidak
- ✓ Bataloak ✓ Jaunartzeak
- Santio erreka ouzoo
- 83 57 38



ERRROTA JATETXEA

- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Ocheak

Telefonoa: 83 54 65

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak
Bidaia eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

■ 13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 37 67

Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,
ganadu eta abarretarako



Telefonoa: 83 48 59



Euskal Jaia antolatzeko ohitura handia zen, baina, pixkana-pixkana goltzen joan da. Azken urteotan hori eskuratzeko saio batzuk egin dira. Xurrumurrak antolatutakoak, adibidez

Festa non, ni han

—“Lehengo jaiak bai onak!” dio agure batek —“Orduan bai guk hogei urte!” erantzun besteak. Bigarren zahar horrek dioen bezala, gazte izan behar da festetan ondo pasatzeko. Gazteak dira festen zai egoten direnak eta, batez ere udaran, herriz herri, festaz festa ibiltzen direnak. Festetan ondo pasatzeko importanteena ez da hauek nolakoak diren, baizik eta umorea eta ondo pasatzeko gogoa izatea, eta hori da gazteek soberan dutena.

Gaztea izan behar da joaten disfrutatzeko, baina, hala ere, Orion behintzat, gazteek ez dute parte handirik hartzen antolakuntzan.

● OLATZ GARRIDO ●

Festa programak lan prozesu luzea eskatzen du gure eskuetara iritsi aurretik. Hauek dira ematen diren pausoak.

Hasieta hantean, maiatza aldera edo, bilera bat egiten da. Gehienetan, hamabost pertsona baino gehiago ez omen dira azaltzen. Bilera honek jendea harremanetan

jarri eta lehenengo ideiak mahaigaineratzeko balio du.

Bigarren bileran, ordea, ideiak lantzen dira esa programari forma ematen hasten zaio.

Programa itxura hartzen ari den neurrian bilerak sarriago egiten dira, astero, alegia. Azken bilera hauetarako bospasei pertsona bes-

terik ez dira gelditzten.

Programa erabakita da-goenean, Batzordera eraman ten da aztertzeko, gastuak begiratzeko... Hauek onartzen badute, Gobernu Batzordera eraman eta honek azken erabakia hartzen du. Normalean, festa-batzordeak programa onartzen badu, Gobernu Batzordeak

ere onartu egiten du.

Eneko Dorronsoro da azken sei urte hauetan festak antolatzen buru befarri ibili den gazteetako bat. Berak adierazi digunez, urte hauetan antolakuntzakontutan al-daketa ugari ikusteko aukera izan du.

Azken urteotan Xurrumuru taldekoak izan dira gaz-



Herriko koadrila hauk kaleratutako 'iztude eta artza' oso partikularrak

teon ordezkari. Gaur egun, ordea, taldea desagertzean dago eta gazte gutxi azaltzen dira bileretara laguntza eskauntzera edo ideiaren bat uzaltzera.

Taldearen desagerketak horren gustoko genituen Euskal Festa eta festa hasierako danborrada galtzea ekarri du. Baino hori hai, gazte asko programa irakurtzean kexatu egiten gara. Horretarako denok egoten gara prest!

Festek zentzua galdu dute erabat

Guzti honek, festak gusez egitera eraman gaitu, eta gehienok eguna lo pasatzen dugu. Arratsalde partean futbito partiduren bat ikusi... eta berriro berdin.

Festak motibaziorik gabe gelditu direla aipatzen digu Enekok: "Programa begiratzen baduzu konturatzan zara

Berak, hogeitze zituelabarri zuen parte lehen aldiz festa batzordean. "Pentsatu nuen udaletxean gazteok zer nahia genuen ez zekitela. Gaur egun oso gazte jende gutxi joaten da, oso pasotak dira".

Orain bakalaua dago modan

Jose Inazio ere bat dator Enekorekin festak beste era batera egiten direla gaur egun. "Orain bakalaue eta guzti hori dago modan eta egunez oso jende gutxi ibiltzen da kalean. Gauzak antolatzen daitezke, baina..."

Azken bost urteotan Xanxe eta bera festetan sardinak banatzen jardun dira. Lan ugari egiten duten arren,

argi dago beraiek ere izugarriri ondo pasatzen dutela. Jose Inazio dion bezala, "batek baino gehiagok pena izugarrria hartuko luke aterako ez bagina" eta arrazoi du. Harritura azaltzen da etxeko platerrek etortzen zaien jende guztiarekin, kalera irten ezin duten aiton-amonentzat direla esanaz: "kezkatuta gaude, uste baino gehiago direlako". Sardinadaz gain, Jose Inazio zenbait ikuskitzunere prestatu izan ditu.

Nolakoak ziren lehengo festak?

Oraingo festak ezagutzen ditugu, garai batekoak, ordea, zaharrek ahaztu samarrak dauzkate eta gazteont-

Jendea pasiboa da eta horregatik galdu dira Danborrada eta Euskal Jaia bezalakoak



zat ezezagunak dira. Galdezka-galdezka ibili gara eta Orioko gizonik zaharrenetako batengana jo dugu, Ramon Solaberrietaengana, alegia, garai bateko festak nolakoa ziren pixka bat urgiitzeko.

Plazan baltzean jarduten ziren matrimonioak

"Orduan, festetan ere itsasora joaten ginan goiz partean. Ez ginan orain bezala bizi. Pentsa, ez genuen ezta galtza pare bat osorik ere, festetan luzitzeko; peta txoz josita izaten ziren de-nak" esaten digu Ramonek. "Garai batean, plazan egiten ziren festa guztiak. San Pe-



AUTO-LAN

- AUTOEN KONPONKETAK
- OLO ETA GURPILEN ALDAKETAK

Pelotari kalea Telefonoa: 83 00 34

*karkarak festa
zoriontsuak
opa dizkizue!*

URAITZ

LURRINDEGIA

KIROMASAIA

ESTHETICIEN

ENDAIA, 3 TELNOA: 83 18 97



Entsaio egun honetara etorri ezin izan zuzenak fasta dira argazkian. Dena dela, extreinaldiaren egunean ezagutu ahal izango ditugu

Harribil, herria dantzan jartzeko prest

Duela urtebete eskas elkartu ziren lehendabiziko aldiz. Garai bateko haur eta gazte gehienek bezala Benito Brit oriotarrarekin ikasi zituzten beren lehen euskal dantzak. Orain, berriz, Gorzintzi taldeko kide izandako hauek erreleboa hartu dute ilusioz beteta eta lanerako gogo izugarriarekin. Harribil izena aukeratu dute talde berriarentzat, 32 neska eta 10 mutilez osatua, eta lehendabiziko saioa San Pedro festetan ikusi ahal izango dugu. Lehen saio horren atarian Miren Salsamendirekin aritu ginen hizketan, eta aurrenekoz egiten diren gauza guztiek gertatzen den bezala, oso urduri zegoen.

Lasai hartu eta nerbioak etxean utzi ezkero, seguru gaude oso polita izango dela lehen saio hori.

Zorte on eta.. osasunarekin urratu!

MIREN ETXEBERRIA

Nola sortu zen taldea?

Orio Saint Ciers herriarekin senidetu zenean, garai bateko Gorzintzi dantza-taldeko kide ohiei deitu ziguten saio bat egiteko. Korrika eta presaka jardun ginen entsaioak egiten, eta, egia esan, ez ginen gustora geratu emaitzarekin. Gerora, bes-

telako egun berezi batzuk tokatu ziren, eta berriz ere eskatu ziguten dantza egiteko herrian. Bai gustora egin gainera, baina orduan ere ez genuen denbora nahikorik izan eta saio pobre samarra atera zen. Bien bitartean, grina sortu zitzagun, eta erabaki genuen dejaldi bat egitea serio hasteko, eta... gaurarte.

Hurrengo pausoan, Eusko Dantzarien Biltzarrera dei-

tza izan zen. Ikaragarri amaitu gintuzten eta aurrera segitzeko bideak zein ziren erakutsi ziguten.

Nola moldatzen zarete dantzak ikasteko?

Eneko Dorronsoro Donostiaro Eskola Dantza Taldean zebilen hau guztia sortu zenean, eta harekin joaten ginen beren entsaioak ikustea eta ikastera. Denbora pixkatera, Eneko gurekin

hasi zen Donostiaro taldea utzita, eta berak dantza berri batzuk erakutsi zizkigun.

Bestalde, azkenaldi honetan, Eskola Dantza taldetik bi lagun etortzen dira astean bitan, eta bestela, gutako batzuk joaten gara txandatuz Donostiarra.

Taldean mutilgutxi izateak problemarik sortu al diue?

Uste dut ohitura gaudela,

betiko kontua baita. Askozaz dotoreago dira mutilen dantzak, eta beharbada pobre samarrak geratuko dira. Bain, guk ez dugu nahi hori problema edo muga izatenik: dagoenarekin kompondu behar dugu; koreografia zainduz moldatzen gara.

Zer esan nahi du *Harribil* hitzak?

Oribarzartik itsasaldera dagoen lehendabizkiko lur muturraren izena da. Herriarekin zerikusia duen hitz bat nahi genuen eta hainbat proposamen diferentes ikusi ondoren *Harribil* aukeratu genuen. Iñaki Iturain eta Loren Loidirenen liburutik aterra genuen.

Jantziak eta materialak ba al dituzue?

Oraingo, Gipuzkoakoak egin ditugu. Aurten jaso dugun dirulaguntzak ez digu gehiagorako eman.

Errentariako dantza talde batzko zuzendaria, Ramon, diseinadorea da, eta XVL mendetik hasita gaur arteko jantziak ikerketa egina du. Eta bere diseinutik hartutako jantziak erabiliko ditugu, hain zuzen ere, XIX, mendekoak. Bost jantzi Legazpiakoak dira eta beste hamabostak hemen ingurukoak.

Materiala berriz, oso gutxi dago. Gorzintzi talde ohiarena, eta dagoena, pipiak janda,

Guztira zenbat jantzi dituzue?

Berez, esango genuke jantzi bakarra dela. Azpiko gona eta gona, baina, dantza motaren arabera, komplementu desberdinak eransten zaizkie jantziari. Adibidez, zapi diferentes edo gonari zerbaite gehiago erantsi edo kentu. Dantza batetik bestera, gauza bakarra alda daiteke, adibidez, txalekoa kendu eta alkandora hutsik dantza egin.

Aintzinako dantzak ez direnetan, jantzia ere modu li-

breago batean diseina daiteke. *Harribil* pasa den mendeko dantzetan oinarritu da, eta gehienbat kolore eta diseinu desberdinak jokatu dugu.

Nondik jasotzen dituzue dirulaguntzak?

Orioko Udalek eta Jauritzatik 700.000 pezeta jaso ditugu edo, hobe esan, jasoko ditugu. Diru hau bi zaitan emango digute, eta oraingo bakarra jaso dugu.

Hasieran Udalekoak bakarrak jaso genuen, eta gero jakin genuen. Udal-kontserbatoriaoren barrukotalde bat izanezkerro. Jauritzatik ere zerbaite jaso genezakeela. Dena dela, talde indepen-

dientea gara.

Udal-Kontserbatorioarekin harremanik ba al duzue?

Bai, harreman oso estua dugu, eta aurrerantzean ustetutu oso ona izango dela.

Zergatik?

Gure asmoa ez da txistua bakarrak erabiltzea dantzarako, beti ezagutu izan dugun bezala. Aurrerantzean, ahalik eta instrumentu gehien sartu nahi ditugu gure dantzetan. Biolina, flauta, soinua, txistua, danborra, trikitixa...

Beraz, oso ondo datorkigu kontserbatorioaren barruko talde bat izatea.

Baina, hori bai, gure era-

bakiak guk hartuko ditugu eta gure estatutuak izango ditugu.

Taldea sortzeko garaian zein izan da trabarik handiena?

Alde batetik, lokala. Orain Kosta tailerra zegoen leku horretan entsaiatzan dugu, eta lurra ez da batere egokia. Guretzako beharrezkoak dira isipilua eta barra; eta oraindik ez badugu ere, Udalak agindu dizkigu.

Bestalde, dirulaguntza oraintxe jaso dugu, eta jantziak egiteko oso denbora gutxi izan dugu. Gu geroni ari gara jantziak egiten, jostunari eman ezkerro oso garesti joko bailiguke. Marija Lazkano ari da jozte-lan guztia egiten.

Beraz, azpiegitura falta zaizue.

Bai, hasiera batean ez genenki noraino iritsiko ginen, eta Donostiako Eskola Taldeko erritmoa hartu genuen, oinarria ondo finkatua izan gabe. Orain dirulaguntza jaso dugunean piskanaka ari gara gure beharrei aurre egiten.

Hala ere, orain dugun problemarik handiena jantziak moldatzea da. Iruditzen zait egunki ez dugula lan hori egiteko. Bain, tira... azkenengo momentuan bada ere, moldatuko gara, ilusio ikaragariarekin ari gara eta. Zein egitasmo duzue aurrera begira?

Haurrek hasteko asmoa dugu, nahiz eta oraindik noiz jakin ez. Bain, lehendabizi barruko egitura ondo finkatu nahi dugu.

Bestalde, ez dugu nahi festetako bi aktuazioetara mugatu. Gehienbat gure nahi, herriko ekintzetan parte hartzea da, baina ez *Harribil* izenarekin, baizik eta irekia. Koreografia errezzak entsaiatu eta edozeini eskaini aukera dantza egiteko.

"Dantzan isipilua eta barra beharrezkoak dira eta oraindik ez baditugu ere, Udalak agindu dizkigu"



BERTSOAK

San Pedro jaiei buruzko bertso zahar batzuk aukeratu ditugu. Axentxio Txankarenak dira.

Axentxio Txanka Orion jaio zen 1890ean. Txanka Goikoa baserrian, eta 1961ean hil zen. Bertso ugari kantatu zuen Orio eta Usurbil inguruetan eta, baita, hortik kanpo ere. Antonio Zavalak liburu batean bildu zituen bere bertso batzuk: ahoz jasotakoak eta bertso-paperetatik atereak.

Liburu horretatik hartu ditugu guk zuei eskaintzeko.

Arrantzalien jaia
San Pedro eguna,
urte guztiko poza
ematen diguna,
soñuba eta dantza,
jana ta edana,
iru bat egunian
sobraturik dana.

Arrai leku ederra
degu Kantabrija,
arrabatikan dator
arraieren kriya,
putzu orrek danentzat
sobra du tokiya,
itsasotik mantendu
jendien erdiya.

Itsaso bazterrian
bafore txikiyak,
oiek ere dauzkate
beren komeriyak,
arrantzaliak geitu,
gastuak aundiak,
tanak ematen dixke
neguban ogiyak.

Korrokoi ta txitxarro,
antxo ta sardiña,
txipiroi eta berdel,
bixigu, lupiña,
atuna artzen dute
arrayik aundiña,
ondo eskabetxatzen
gaur askok dakiña.

Bafore txikiyakin
atun arrapatzan,
bi eguneko birian
dira atrebitzen,
amar bat egunian
ez dira baziertzen,
oriyotarrik ola
len etzan ibiltzen.

Len ere juten ziran
atunaren billa,
arraun eta kalero
eta gizon pilla,
bela zabaldu eta
azaldurik killa,
iraulli eta bada
makiña bat illa.

Ardoran ere baita
antxo manjuakin,
iñoz etxara ederrak
oi dituzte egin,
ondo konpontzen dira
tabernariyakin,
kafia partitubaz
txakur dirubakin.

Akordatutzen gero
lengo kontuakin,
ogei baso sagardo
pezeta batekin,
parrillan erre eta
sardiña berriyakin,
sardiñik etzanian
txuleta aundiaykin.

Zortzi duro askotan
kilo aragiya,
sasoikuak eskas du
lau pezten ogiya,
ardua zazpi pezta
litroko porroga,
gaur ezto jaten errez
txuleta aundiya.

Batzuek arrantzian da
hesteak labrantzan,
zarrak bizkarra makur
sasoikuak dantzan,
lenago ere legea
orain bezela zan,
obeto izateko
beti esperantzan.

AXENTXIO TXANKA

G O I Z E K O

Alta Lerkundi, 33
Telefonoa: 83 28 55

- * KAFETEGIA
- * IZOZKIAK
- * CROISSANTEGIA

*pasteleriko
enkarguak
hartzen dira*

Autoak aukera
onean

AIA ORIO
telefonoa: 13 04 38

Altxibar

Santio auzoa oso gustagarria izan da beti oriotarrontzat. Uda partean, Santa Ana eta Santio egunak iristearekin batera, oriotar askok egiten du urteroko bisita Santiora, hutsik egin gabe.

Udan KARKAR Arik kaleratuko ez denez, pixka bat aurreratu egin dugu guk bisita hori, Santioko jaien gainean hitz egiteko Altxibar baserriko Jesus eta Mariasun senar-emazteekin.

**ANA G. DE TXABARRI
JABIER ZABAleta**

Hogeita hamar urtetik gora dugun oriotar askok ondo gozoan ditugu Santioko festetara joan eta han egindako arratsalde-pasak. Lehendabizi Dorre baserriaino joaten ginen eta Santiora bertara gero, afari-merienda zelaien eginda. Gaur egun, gero eta jende gutxiagok jarraitzen dio ohitura horri; baina, oraindik, jende asko hurbiltzen da Santioraino festa-egun horietan, inguruko baserriatik, Oriotik eta baita kanpotik ere.

Altxibar baseria Santion bertan dago, ermitaren ondoan eta frontoia parez pare duela. Aurrean soro kokor bat dauka eta garai honetan loren ederki apainduta erakusten du bide ondoko sarea.

Auzoko kontu batzuk jakiteko, Portu jatetxeen bildu gara Jesus Portularrumerekin eta Mariasun Lizasorekin. Orain dela gutxi hartu dute

jatetxea (lehen Obia izena zuena) eta bertako sukaldetik atezarazi genuen Mariasun gurekin jarduteko, terrazako giro ederrean.

Jesus Portularrumen Santionko Larrume baserriko da eta Altxibarreko zuen izeba; ezkonduko Zarautza bizitzera joan bazeen ere, ederk dakizki auzoko kontu zaharrak, Mariasun Lizaso, berriz, Aiako Laurkingoa da izatez. Orain dela sei-zazpi bat urte hartu zuten Altxibar baseria eta goitik behera berritu zuten. Geroztik, bertan bizi dira bi semeekin eta Mariasunen bost anai-arrebekin.

Mutil-ardoa eta soinua

Altxibarren juntatzen zen jendea Santio festetan. Ganbaran mutil-ardoa eta soinua izaten zen eta, beheko aldean, taberna.

Auzoko mutilek hainbes-

teko bana jartzen zuten eta bildutako diru horrekin antolatzen zen festa: 500 bat litroko ardo-kupela mutil-ardoarako, eskusoinujoleak, beretsolariak... dena horrekin ordaintzen zen. Lau gazte izendatzen ziren urtero jaiak antolatzeko eta, festak pasatakoan, San Inazio egunean, biltzen ziren auzoko gazteak berriro, kontuak egiteko eta hurrengo urteko festak zein gazteek antolatuko zituzten erabakitzeko.

Erroskillala-saltzaileak ere izaten ziren: gehienetan kanpotik etorritakoak, baina Aiatik ere etortzen omen zituen.

Aiar haietako batek, gainera, Koalla baserriko Larrañagak, berak etxean egindako erroskillak saltzen omen zituen.

Mundua biltzen zen Santion. Santio beri izan du jendea biltzeko 'zero' berezia —esan digu Mariasunek — eta oraindik ere gordetzen du. Lehen baino gutxi eago, hala ere.



Gaur egungo festak

Gaur egun jendeak ez du lehengo irrikia festarako — dio Jesusek. Festak asko dagoelako edo automobilaren batera eta bestera oso erraz mugitzen garelako... ez dakit zer izango den baina lehen ilusio gehiagorekin harzten zen festa.

Auzoko mutil gazteek antolatzen dituzte festak gaur egun ere. Dirua biltzeko sistema, ordea, aldatu egin da; orain familia bakoitzari eskatzen zaio horrenbesteko bat. Dagoeneko hasita daude gazteak aurtengo programa osatzen. Lehengo aldean berundu izaten da orain festa: gazte-jendea ganeko hamaketatik atzerira etortzen da. Ia-ia gu erretiratzen ginen garaian —esan digu Jesusek, parrez—.

Ohiturak aldatzen ari badira ere, Santioko jaiek gordeztzen dute oraindik garai bateko kutsua. Giroa erabat euskalduna izaten da eta festa, berriz, aparta.

jaiotakoak

Aritz Pardina Herrero, ekainaren 2an.

Aian

Manex Esnal Azpiroz, ekainaren 4an

ezkondutakoak

Agustin Erkizia Salegi eta Rakel Etxeberria Esnal, ekainaren 15ean.

Jose Inazio Sarasua Makazaga eta Lurdes Susperregi Agote, ekainaren 15ean.

Eugenio Aranburu Agote eta Mertxe Ikutza Oliden, ekainaren 22an.

Aian

Justo Odriozola eta Idola Zarautz, ekainaren 22an.

hildakoak

Angela Izeta Iñarra, ekainaren 7an, 88 urte.

Aian

Ez da hildakorik izan

zorionak***Maria Sagrarioi***

Zorionak emateko aukera ugari geneukan zenbakil honetan: Haribil dantza-taldekoak, Usurbilen sortzeardagoengurearen tankerako aldizkaria, Noaua izenekoa...

Hala ere, bat aukeratu behar eta ez dugu zalantzak izan: Maria Sagrarioi ederki irabazita dauka oriotar guztiion estimazioa, Goiko kaleko eskolan egindako lanagatik. Gipuzkoako haurtzaindegirik zaharrena ixtera doan honetan, jaso dezala herritarren esker ona eta KARKARAren zorionik beroena.

zoriotxarrak***Musika Eskolako ikasleei***

Kurtsoari amaiera emateko Musika Eskolak, beste hainbat emanaldiren artean, bi kontzertu antolatu zituen elizan. Kontzertuak propio-propiojarri ziren eskolaegunetan, Musika Eskolako ikasleei joateko erraztasunak ematearren.

Erantzun ezin eskasagoa izan dute kontzertu horiek: Ricardo Sciammarella bilontxelojolearen saiora 19 lagun azaldu ziren eta Iñaki Alberdiren era, berriz, 12. Horietatik gehienak, gainera, Musika Eskolakoak ez zirenak. Penagarria.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

Iturbide, 11 Tfnoa: 83 17 74

daddy

Udarako
arropa berria

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

ITURAIN
estankoa

Aritzaga Plaza ☎ 83 08 28

ertza

Telefona: 83 09 29

Orain dela 25 urte...

Untero, ekaina iristean, hondartzako denboraldiari ematen zaio hasiera, 1971n, hilaren 20an jarri ziren hondartzako zerbitzuak martxan, eta igande hartan 990 auto egon ziren aparkalekuuan.

Gero, ohi denez, San Pedro jaiak iritsi ziren, baina aurretik, ekainaren 12an, 65 urtetik gorako arrantzaleek beren jaia ospatu zuten. Goizeko hamarretan meza izan zuten eta arratsaldeko ordubietan bazkaria Mariñela jatetxeen.

San Pedro festei 27an eman zitzaien hasiera, frontoian izan zen kantaldi batekin. Partaideak ondorengo hauek izan ziren: Erlak bikotea, Jon Illarramendi, Txaitro bikotea, Enarak eta Patxi Maritxalar.

San Pedro eguneko programa:

- 8.30etan Ordiziako Laguntasuna Rondalla kalez kale.
- 9etan erraldoi eta buruhandiak.
- 10etan Meza Nagusia. Ondoren prozesioa izan zen.
- 11.30etan harrijasotzaileak.
- Arratsaldeko Setan pelota txapelketako finala.
- 6.30etatik ordubiak arte berbena Gala taldearekin.
- 11etan Su artifizialak.

San Pedro bigarrena:

8.30etan txistulariak.
11etan Uztapide eta Lasarte bertsolariak plazan.
4etan plater tiroketa.

6.30etatik 2ak arte berbena plazan.

San Pedro eguneko harrijasotze saioan, proba berezi bat antolatu zuten berrogei urteko gorakoentzat. Bittor Zabala "Arteondo"ren 188 kiloko harri errektangularra altxatu behar zen. Irabazlearentzako saria 25.000 pezeta zen, eta behin altxatzen zuten guztientzat hamarna mila pezeta.

Harria Gipuzkoako Kutxaren egoitzan egon zen erakusgai.

Proba zaila zen eta Luis Atxagak bakarrik hartu zuen parte. Bi aldiz altxatu zuen, beraz berarentzat izan zen saria.

Arraunari dagokionez, berriz, oriotarrak Parisen izan ziren aulkia mugikorreko Senako Txapelketan. Laukoan lehenengo egunean kanporatu zituzten, baina Jose Luis Kortak lan bikaina egin zuen skifean eta hirugarren iritsi zen. Kontutan eduki behar da munduko arraunlariak onenek parte hartu zutela.



HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

Gure
herriko
garagardoa

iTZiAR
Kirolak

Tlfnoa: 83 31 03

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA. S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3. Tfnoa: 13 46 07

Ibai-ondo
Supermerkatua

Tfnoa: 83 47 50

Carmen

ARRAINDEGIA

Tfnoa: 83 05 37

TXOMIN
arraindegia

Tfnoa: 83 27 47

nire honetan

Jaunartzeak eta bikiniak

Udaberria pasa da, eta udaberriarenkin batera lehenengo beroak, azterketak, jaunartze eta konfirmazioak eta baita, nire ezagun batek esaten duen bezala, "la operación bikini", hau da, bikini jazteko momentua eta, horri lotuta, argultzeko erromena (Biomanan, aerobie, masajeak...).

Unteroko gauzak dira eta ez dugu horietan gehiegiz errepazten. Gainera ba al dute elkarren arteko loturak? Zerikusirik ba al dute Jaunartzeak eta bikiniak? Nik baietz esango nuke. Nire uez gizartearen adierazle ezin hobeak dira, adibide batzuk besterik ez badira ere.

Zer da Jaunartza azken finean? Opariak, ez dakit zenbat lagunentzako buzkaria, soineko dotorea, orrazkeraproba... Bi hitzetan esanda, kontsumoa eta itxura. Batzuek esango dute hau ez dela egia kasu guztietan, eta arrazoi izango dute. Baina, nire uez, jaunartzeek, (eta jaunartzeek bezala ezkontzek eta neurri txikiago batean konfirmazioek) galdu egin dute garai batean zuten esanahia. Orain, kontsumo feria bihurtu dira, dirutza ikaragariak mugitzen baitira ospakizun horien inguruari. Horrez gain, eta batez ere nesken kasuan, txiki-txikitatik hasten gara polita egotearen garrantzia jabetzen. Horra hor "operación bikini"rekin duen lotura.

Zer da ba, "operación bikini"? Beste hainbeste: itxuri eta kontsumoa.

"Danone gorputza" izateko presioa urte guztian jasotzen badugu ere, egun hauetan, bikini jazteko garaian, askoz nabarmenagoa izaten da. Antizelulitikoak, bestelako kremak, dietetika-etxeak... Ez da ahaztu behar esteitiaka-dietetika mundu horrek milioi asko eta asko mugitzen dituela. Hauak gazte eta ederrak izateko denon nahia aprobatzen dute beren interesatako.

Gaztetasuna eta edertasuna dirua-rekin batera balio handiko kontzeptuak dira gure gizarteak. Badirudi beste hainbat balore zaharkituta daudela eta, jakintu, zaharra baztertu egiten da.

● ANA ITURAIN ●

KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



Bixentiko Korta

Herriko gazte askok ez du jakingo Jose Luis Kortak anai bat dauka, baina badauka: Bixentiko, Bixente Korta. Hau, Jose Luis bezela, Ortzaikan jaio zen eta ekainaren 17an egin diu 42 urte; gazte-gaztetatik lotu zitzzion arraunari; aurrena patroi, gero arraunari. Arraunaren ildoak cruman zuen orain bizileku duen Castro Urdialesera, 24 urte zituera. Gerrotik han bizi da bertakoaren emaztearekin eta bi semeekin, 14 eta 5 urtekoak. Hauak ez dituzte aitaren urratsak segitu eta futbolzaleak dira, biak.

Euskal Herriarekin muga egiten duen Santaderko kostaldeko lehen herri honetara arraunlarien entrenadore joan zen Inazio Sarasua zenaren eskutik, baina gaur egun klubaren presidente da. Aitorre duenez, urte batzuetan ez daukate zer eginik, jende gutxi omen dauka arraunean eta, gainera, oso gazteak. Trainerua osatu dute eta, dagoeneko, lehen estropada egin zuten Astilleron lehengalarunbatean, baina ez dauka esperantza haundirik. Jubiletan trainerilla polita izan dute eta Espaniako txapelketari iritsi ziren, behintzat.

Oriora nahi baino gutxiagotan etortzen da. Gabonetan urtero familiarekin familiarengana. Uda garaian gehiago, arraunaren aitzakiaren batekin zerbaiteara. Bizitzera ere etorriko omen litzateke lanen bat edukiz gero hemen, baina lana han dauka, Castroko udaletxean,

elektrizista jefe, hara joan zenetik. Oriotik faltan zer sentitzen duen galdetuta, giroa oso desberdina dela esan zigun eta askotan gogoratzen dela hemen zeukan lagunartea.

Arrauneko kurrikulumaz ere galdu genion, telefonoz izan genuen elkartizketan eta garbi geratu zen oso memori oina dauka; segidan esan zigun: lehenengo bandera Andoainen irabazi zuen, bateletan, patroi, arraunean Altzerri eta Gorria zirela, 64an. 1968an Orioko zortziko mitikoaren patroia zen Espaniako txapelketa eta Orioko uretan Oxford-i irabazi zitzainean, 69an ere bai Oxford eta Cambridgeren kontra. Arraunari hasita, Redondorekin Espaniako txapelduna izan zen bikoan. Gero anaiarekin batera «doble scullean» 3 aldiz fortu zuen urrea Espaniako txapelketan eta mundialean parte hartzen iritsi zen 74an, Luzernan. Trainerillean 3 aldiz irabazi du Espaniako urrea. Baina Kontxa behin bakarrik irabazi du, 1973an Lasartera joan zenean. Jose Luisi segiku. Haren itzalean urtebete Kaikun egin zuen, soldadu zegoen garaian, Castroa joan aurretik, 1977an.

Aurtengo traineru denboraldia estu samar joango dela uste du Bixentikok, baina ausartu zen pronostikoa egitera, «Orio ibiliko da ondoen eta berak irabaziko du Kontxan».

'Menuak euskaraz' kanpaina egin du Euskara Batzordeak

*Maiatza eta ekainean
kanpaina berezi bat egin
du Udaleko Euskara
Batzordeak: 'Menuak
Euskaraz'. Helburua,
izenak berak dioenez,
honako hau zen: Orioko
jatetxeetako menuak
euskaratzea.*

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

Udaleko Euskara Batzordea orain dela bi urte hasi zen merkataritza-sektorekoekin lanean, alor horretan euskaren erabilera sustatzen.

1994an programa bat jari zen martxan Euskal Herriko hainbat herrian: *Euskara Merkatal Mundura*. Programa hori SIADECOK koordinatu zuen eta Orio hasieratik sartu zen horretan.

Gerontik, urtero egin dira ahaleginak alor horretan eta, urtetik urtera, gainera, ekinmena zabaltzen ari da, gero eta herri gehiagok parte hartzen baitu.

Kampaina horrek oso gran-
tzun ona izan du Orioko den-
darren aldetik.

Jatetxeen garrantzia

'Menuak Euskaraz' kanpaina ere egindako aha-
legin horien artean kokatu
behar da.

Ostalaritzak garrantzi be-
rezia du gure herrian, taber-
na eta jatetxeek mugimendu
handi samarra baiute.

Uda partean, batez ere, os-
talaritzako establezimen-
duak izaten dira, zalantzak
gabe, bisitatuak eta, beraz,
importantea da horietan
euskarak tratamendu egokia
izatea.

Kanpoko jende askok bi-
sitzen du Orio udako hilabeteetan. Horietatik ge-

hienak Euskal Herriko beste
tokietatik datozenak dira eta,
asko eta asko, Oriok herri
eusklaldun gisa duen irudiak
erakarrita-edo etortzen dira
hona. Horiei erantzuna zor-
zaie, eta taberna- eta jatetxe-
jabeek badute horretan eran-
tzunkizuna. Udalari, berriz,
bide horretan lagunza ema-
tea dagokio.

Kampaina

Kampainaren helburua oso
zehatza izan da: herriko jate-
txe eta tabernetako menuak,
prezio-zerrendak eta horre-
lakoak euskaratzea. Horre-
tarako erabili den sistema ere
oso simplea izan da: aldez
aurrelik gutun bat bidali zaie
Orioko jatetxe-jabe eta ta-
bema-jabe guztiei, kanpai-

naren berri emanet. Ondo-
ren, Udalak horretarako jarri
duen pertsona baten bisita
izan dute. Pertsona hori Eba
Gaztañazpi oriotarru izanda.

Ebak banan-banan bisita-
tu diu ostalaritzako esta-
blezimenduak eta menuak
euskaratzeko proposamen-
a egin die jabeei. Proposame-
na bakarrik ez: Ian hori egi-
teko Euskara Zerbitzuaren
lagunza ere eskaini die. Hala
nahi izan dutenek, beraz, me-
nuak euskaratuta eta txukun-
txukun eskuratu dituzte, zu-
zenean erabiltzeko moduan.
Zerbitzu hori, gainera, guz-
tit doan jaso dute.

Kampainaren ondorioz,
mordoxka dira dagoeneko
beren karta euskaraz duten
Orioko jatetxeak. Ez guziak,
baina bai gehiotsuenak.

Erabiltzaileon txanda

Taberna- eta jatetxe-ja-
beek, beraz, bete dute beren
partea. Orain, berriz, erabiltzaileon txanda da: jatetxera
goazenean —San Pedro fes-
ta hauetan, esate haterako—
eska dezagun menua euska-
raz eta... on egin!

Juantxo
HARATEGIA

Teléfono: 83 18 37

URBAZTER
ASEGURUAK

San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

- **Residencias**
- **Universiak**
- **Enterramientos**
- **Penalak**
- **Errenteria Aitorpenak**
- **Bidaia, e.a.**



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Mende honetako erdialdean ateratako argazkia duzue hau. Dotore azaltzen zaizkigu dantzariak bandera eta guzti. Ez zaigu oso zaila iruditzen eta, gainera, uda osoa duzue ondo aizertu eta erantzunak zuzen bidaltzeko. Zazpi dantzarien izen-abizenak eman behar dituzue.

Bigarren galdera: Noiz izan da Harribil taldearen lehen saloa?

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afaria Boga-Boga jatetxeen izango da.

Erantzunak irailaren 4rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa, Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Sekula ez zaigu horrelakorik gertatu, baina, inork ez du asmatu aurreko aleko lehiaketaren erantzun zuzena.

Beraz, kartu patxada eta jaso gure animoak.

Boga-Boga

JATETXEA

TELEFONO: 83 38 94

UEUko ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak

Orioko Udaleko Euskara Batzordeak, urtero bezala, dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Udako Ikastaroetan parte hartu nahi duten oriotarrei.

Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren bigarren hamabostaldian. Gai ezberdin askotako ikastaroak daude, batez ere unibertsitateko ikasleei zuzenduak.

Dirulaguntza eskatzeko edo informazio gehiago nahi iza-nez gero, jo Udaleko Euskara Zerbitzura. Lagunza horietako bat eskatzeko azken eguna ekainaren 28a da.



**Nos unimos
a la fiesta.
Zuekin batera
festara goaz.**

